



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2020ko MAIATZAREN 26an EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2020ko maiatzaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Shrabani Aranzabe Pita
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga
Unai Sorarrain Urruzola
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen du: Concepcion Soria Legua

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkurako aktan onespena.**
 - ✓ 2020ko apirilaren 15ean egindako ez ohiko bilkuraren akta.
 - ✓ 2020ko apirilaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2/2020 Kreditu aldaketaren hasierako onespena, hala bada.**
- 5. Alkizako kultur paisaia balioan jarri eta erakargarritasun artistikoa gehitzeko proiektuaren onespena, hala bada.**
- 6. Alkizako sormenaren kabia: Deialdiaren hasiera eta oinarrien onespena, hala bada.**
- 7. Alkizako udal ondasun eta eskubideen inbentarioaren onespena, hala bada.**
- 8. Alkizako Fagus interpretazio zentroaren erakusketan, panelen egokitzapen lanak egiteko kontratuaren esleipena, hala bada.**
- 9. Herri langilearen laguntzaile baten kontratuaren onespena, hala bada.**
- 10. Franco-ri Alkizako Ohorezko Alkate izendapena kentzea, hala bada.**
- 11. Beste batzuk.**
- 12. Mozioak, erreguak eta galderak.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

.../...

Udalbatza honekin hasi aurretik udal batzarkide guztien partez Unai Sorarrain zinegotziari doluminak eman nahi dizkie, bere amonaren heriotzagatik.

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA

- 2020ko apirilaren 15eko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2020ko apirilaren 28ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 43/2020tik 69/2020ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

| | |
|----------------|--------|
| URAK | 211,75 |
| ULAHI | 578,33 |
| ARGITU | 166,11 |
| BERRI LANTEGIA | 75,85 |
| QUISER | 61,59 |
| SOLRED | 52,52 |
| IZADI | 152,94 |
| QUISER | 89,73 |
| ACSOL | 73,04 |
| ACSOL | 55,22 |
| ACSOL | 78,57 |
| ACSOL | 174,48 |
| ACSOL | 22,55 |



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

| | |
|-----------------------|----------|
| ACSOL | 45,50 |
| ACSOL | 433,23 |
| ACSOL | 371,64 |
| ACSOL | 93,91 |
| ACSOL | 275,92 |
| BERRI LANTEGIA | 15,73 |
| EUSKALTEL | 116,78 |
| EXERCYCLE | 338,59 |
| IMPORT-QUIMIA | 389,20 |
| IBERDROLA | 21,71 |
| TOLOSALDEKO ATARIA | 19,11 |
| DIONISIO ORMAZABAL | 12,37 |
| ZUMARPE | 3.930,08 |
| CALDERERIA ABURUZA | 2.873,75 |
| SOLRED | 33,61 |
| MOVISTAR | 179,62 |
| MOVISTAR | 55,00 |
| NORTEGAS | 46,28 |
| NORTEGAS | 279,00 |
| NORTEGAS | 298,41 |
| HARGOI | 2.142,91 |
| HARGOI | 659,57 |
| OTIS | 433,60 |
| GUREAK | 1,52 |
| ARGITU | 166,11 |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 49,73 |
| GARAJE IBARRA | 224,94 |
| LYRECO | 273,16 |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 230,12 |
| IZADI | 152,94 |
| ACSOL | 134,77 |
| ACSOL | 61,95 |
| ACSOL | 74,22 |
| ACSOL | 42,33 |
| ACSOL | 44,25 |
| ACSOL | 21,19 |
| ACSOL | 436,50 |
| ACSOL | 98,09 |



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

| | |
|-----------------------|--------|
| ACSOL | 188,06 |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 626,78 |

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **17.684,86** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2/2020 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Udala honen 2020 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko 2/2019 kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, aho batez honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|------------------------------|------------------------------------|-----------|-----------|----------------|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0000.201.320.00.01 2020 | ESKOLAKO LOKALA ALOKAIRUA | 600,00 | 2.000,00 | 2.600,00 |
| 1 0000.211.164.00.01 2020 | hilerriko gastuak | 1.000,00 | 2.627,00 | 3.627,00 |
| 1 0000.212.320.00.01 2020 | ESKOLAKO IGOGAILU MANTENIMENDUA | 0,00 | 1.740,00 | 1.740,00 |
| 1 0000.212.340.00.01 2020 | kirol gelako mantenimendua | 500,00 | 500,00 | 1.000,00 |
| 1 0000.220.920.00.02 2020 | PRENTSA ALDIZKARI ETA BESTE | 1.500,00 | 500,00 | 2.000,00 |
| 1 0000.226.231.00.99 2020 | covid-19 ordainketak | 0,00 | 1.000,00 | 1.000,00 |
| 1 0000.227.920.00.05 2020 | aholkularitza artxibo antolaketa | 0,00 | 1.452,00 | 1.452,00 |
| 1 0000.422.943.01.01 2020 | TOLOSALDEKO MENDI NEKAZARITZA | 2.800,00 | 49,00 | 2.849,00 |
| 1 0000.625.162.10.01 2020 | zabor ontzi berriak | 3.000,00 | 1.000,00 | 4.000,00 |
| 1 0000.629.172.00.01 2020 | BIODIBERTSITATEA 2018 | 50.000,00 | 15.000,00 | 65.000,00 |
| 1 0000.642.920.00.01 2020 | plan orokorra | 2.000,00 | 23.000,00 | 25.000,00 |
| 1 0000.643.172.00.01 2020 | Zona degradatuetako proiektua | 0,00 | 1.815,00 | 1.815,00 |
| 1 0000.480.321.00.01 2020 | Covid 19 aurre egiteko laguntzak | 0,00 | 1.000,00 | 1.000,00 |
| 1 0000.220.150.00.01 2020 | HIRIGUNeko SEINALIZAZIOAK | 0,00 | 725,00 | 725,00 |
| 1 0000.212.166.00.01 2020 | fosako saneamendu kontrola | 4.500,00 | 1.331,00 | 5.831,00 |
| 1 0000.211.230.00.01 2020 | don juanena etxeko konponketak | 1.000,00 | 1.000,00 | 2.000,00 |
| | | | | |



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

| | | | |
|----------------|-----------|-----------|------------|
| GUZTIRA | 66.900,00 | 54.739,00 | 129.939,00 |
|----------------|-----------|-----------|------------|

| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|-----------------------------|---------------------------|-----------------------|------------------|
| a | 2 0000.870.000.00.01 2020 | KREDITU GERAKINA 2019 | 54.739,00 |
| FINANTZAKETA GUZTIRA | | | 54.739,00 |

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

BOSTGARREN PUNTUA

HERNIO-GAZUMEKO KONTSERBAZIO EREMUAREN ALKIZAKO SARRERA ZONALDEA BERRONERATZEKO PROIEKTUAREN ONESPENA, HALA BADA

Koldobika Jauregi zinegotzia 19:45 orduetan batzar honetara bertaratzen da.

Ikusirik ingurumeneko eta obra hidraulikoetako departamentuak, Gauzazko diru-laguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2020ko deialdia onartu zuela: Gipuzkoako Lurralde Historikoan degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektu eta jarduerarako.

Ikusirik, Alkizako Udalak interesa duela aipaturiko diru-laguntza eskaera egiteko.

Ikusirik, aipaturiko diru-laguntza eskaera egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioaren artean ondorengo dagoela “ Proiektua edo jarduera onartzeko udal akordioa, non diru-laguntza eskatzen duen inbertsioaren zenbateko osoa adieraziz egikaritze teknikoko proiektuarekin edo obren memoria balioetsiarekin bat eginez; halaber, adierazi beharko da onartzen duela lan horiek Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartzea.”

Ikusirik KIMUBAT enpresak prestatu duela” Hernio-Gazumeko kontserbazio eremuaren Alkizako sarrera zonaldea berroneratzeko proiektua”.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aipaturiko proiektuaren arabera, proiektu honen inbertsio osoa 69.958,32 euro dira.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: KIMUBAT enpresak idatziriko “Hernio-Gazumeko kontserbazio eremuaren Alkizako sarrera zonaldea berroneratzeko proiektua” onestu.

BIGARRENA: Gipuzkoako Lurralde Historikoan degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektu eta jarduerarako diru-laguntzaren deialdira, “Hernio-Gazumeko kontserbazio eremuaren Alkizako sarrera zonaldea berroneratzeko proiektua” aurkeztuko da, diru-laguntza eskatuko den inbertsio osoa 69.958,32 euro izango da, bat egiten duelarik proiektuaren memoria ekonomikoarekin.

HIRUGARRENA: Alkizako Udalak onartzen du, Hernio-Gazumeko kontserbazio eremuaren Alkizako sarrera zonaldea berroneratzeko proiektua suposatzen dituen lanak, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO SORMENAREN KABIA: DEIALDIAREN HASIERA ETA OINARRIEN ONESPENA

Ikusirik Alkizako Sormenaren kabia egonaldi artistikoen 2020 urterako deialdirako oinarriak prestatu direla.

Kontutan izanik, udal batzarkideek, aipaturiko deialdiaren oinarriak aztertu dituztela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Sormenaren Kabia egonaldi artistikoen deia egitea 2020. urterako.

BIGARRENA: Sormenaren Kabiaren 2020ko edizioa gidatuko duten oinarri arautzaileak onartzea.

HIRUGARRENA: Sormenaren Kabiaren 2020ko ekitaldiko epaimahaia onartzea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: Sormenaren Kabia egonaldien 2020ko edizioan hautagaiak aurkezteko epea ekainaren 5etik uztailaren 5era bitartean indarrean egongo da, bi datak barne.

BOSGARRENA: Sormenaren Kabia egonaldien oinarri arautzaileak Alkizako Udalaren eta Fagus Alkiza Interpretazio Zentroaren atarietan ikusgai jartzea. Hala, edonoren eskura daude www.alkiza.eus eta fagus-alkiza.com web orrialdeetan.

SEIGARRENA: 2.000,00 eurotako gastua onestea udal aurrekontuetako 480.172.00.01 partidaren kargura.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDAL ONDASUN ETA ESKUBIDEEN INBENTARIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Ez dago Alkizako udalean ondasun eta eskubide guztiei buruzko inbentariarik, behar bezala eginda eta eguneratuta. Halaber, kontuan hartu behar da toki-erakundeen ondasun eta eskubide guztiak inbentario batean jaso behar direla, hala agintzen baitu toki-araubideari buruzko legeriak.

Batetik, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 86. artikuluan –Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testu bategina onetsi zuen arau horrek, TATB–, eta bestetik, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 17. artikuluan agindu denari jarraituta –Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onetsi zuen arau horrek, TEOE–, toki-erakundeek inbentarioa egin behar dute, beren jabetzako ondasun eta eskubide guztiak balioztatuta.

Udaleko Idazkari-kontuartzaitzak dagokion txostenak igorri zituzten, eta espedientera gaineratu dira.

Horiek horrela, udalbatzak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU :

LEHENENGOA: COREOLUTIONS enpresak prestaturiko Alkizako udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra onartzea, Ondasun eta eskubide bakoitzaren datu zehatzak espedientean bildu dira. Bertan jasotzen dira ere Alkizako Udalaren herribideen sarea.

Ondorioz, Korporazioko Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Orokorraren



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

zenbatekoa, guztira, 2020 ekitaldiko maiatzaren 1ean 3.004.947,77 euro da.

BIGARRENA: Onurakotzat jotzea espedientea jendaurrean ezagutzera ematea eta dagokion entzunaldia zabaltzea, espedientea aztertzeke aukera izan dezaten eta egoki iritzitako behar beste alegazio eta iradokizun aurkeztu eta, horretarako udaletxearen web orrian eta iragarki-taulatan argitaratuko da, baita Gipuzkoko ALDIZKARI OFIZIALEAN ere.

HIRUGARRENA: Aipaturako epea igaro eta alegazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, Udalbatzak harturako erabakia behin betiko izaeraz onartutzat iritziko da.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO FAGUS INTERPRETAZIO ZENTROAREN ERAKUSKETAN, PANELEN EGOKITZAPEN LANAK EGITEKO KONTRATUAREN ONESPENA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Fagus Alkizako interpretazio zentroaren erakusketan dauden paneletan egokitzapenak egiteko kontratua esleitzea.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Ikusirik lan hauek egiteko hiru aurrekontu eskatu direla: KIMUBAT EKOPAISAIA S.L, ESTUDI BIKOTE ETA IZARRAITZPE LOREZAINZA S.L. enpresei.

Aipaturiko aurrekontuak azterturik, KIMUBAT EKOPAISAIA S.L. enpresarena merkeena dela aurriztatu da.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. *Hornidura* kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Hornidura kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: KIMUBAT EKOPAISAIA S.LL *enpresari*, Fagus Alkizako interpretazio zentroaren erakusketan dauden panelen egokitzapenak egiteko kontratua esleitzea 4.948,00€-tako diru kopuruan (BEZ kanpo). Ordainketa 629.172.00.01 kontu sailaren kontura egingo da.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

HERRI LANGILEAREN LAGUNTZAILE BATEN KONTRATUAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Herri langileak hainbat lan egin behar dituela, eta hauek egiteko beste pertsona baten beharra duela. Horregatik LANBIDERA eskaintza eskabide bat egin da.

Ikusita LANBIDEK bidalitako eskabideen artean bakararra dela Alkizakoa eta honek eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Jose Luis Beobide Mugica jaunari, jornada erdiko kontratu bat egitea, ekainaren 1etik hasita eta egin behar diren lanak bukatu bitartean.

HAMARGARREN PUNTUA

FRANCO-ri ALKIZAKO OHOREZKO ALKATE IZENDAPENA KENTZEA, HALA BADA

Ikusirik Francori Alkizako Ohorezko Alkate izendapena kentzeko Alkizako Alkatea den Inaki Irazabalbeitia jaunak aurkezturiko idatzia, non ondorengo dioen:

“Francori Alkizako Ohorezko Alkate izendapena kentzea

1949ko abuztuaren 21ean eginiko osoko bilkuran Alkizako udalak Francisco Franco Behamonde diktadorea ohorezko alkate izendatu zuen. Ohore hori emateko ideia ez zen herritik bertatik sortu. Gipuzkoako gobernadore zibilak eginiko eskaera bati men eginez hartu zen erabakia.

Kontutan hartuta Francisco Franco ordena konstituzional demokratikoaren kontra emaniko estatu-kolpe baten burua izan zela, aintzakotzat edukita bere armadak Euskal Herriko bazter zabalak su eta armaz hartu zituela, aintzat hartuta diktadura basati bat ezarri zuela eta gogoan hartuta euskara eta euskal nortasuna grinaz jazarri zituela Alkizako udalak erabaki hau hartzen du.

- Francisco Franco Bahamonde diktadoreari herriko Ohorezko Alkate izendapena kentzea.

Erabaki horren berri herritarrei, Estatuko gobernuaren ordezkariari eta komunikabideei emango zaie.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Francisco Franco Bahamonde diktadoreari, herriko Ohorezko Alkate izendapena kentzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri herritarrei, Estatuko gobernuaren ordezkariari eta komunikabideei ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HAMAİKAGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

11.1. DON JUANENA ETXEKO BIGARREN SOLAIRUKO UDAL APARTAMENTUA ALOKAIURIAN ESLEITZEKO DEIALDIAREN ONESPENA

Ikusirik Don Juanena etxeke bigarren solairuko udal apartamentua hutsik gelditu dela.

Ikusirik, Alkizako Udalak interesa duela berriro Don Juanena etxeke bigarren solairuko udal apartamentua alokatzeko, horretarako oinarriak prestatu direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Don Juanena etxeke bigarren solairuko udal apartamentua alokairuan esleitzeko dagokion deialdia egiteko onespena ematea.

BIGARRENGOA.- Don Juanena etxeke bigarren solairuko udal apartamentua alokairuan esleitzeko prestatuturiko oinarriak onestea.

HAMABIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.10 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

IDAZKARIAK



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)